

San Martin ameskua - Bioitza 11,7 Km



Kokapen geografikoa

Hilabete honetako ibilbidea hegoaldetik iparraldera zeharkatuko du Urbasa. San Martin Ameskua eta Eulateren goiko partetik hasiko dugu ibilbidea Olazti inguruan bukatzeko. Urbasa eta Andiako Parke Naturala balio handiko naturgunea da alde askotatik begiratuta: geologia, biologia, ekologia, paisaia, arkeologia, gizartea eta kultura. Lur hauen balioek bere osoan duten aberastasuna ikusita, Nafarroako Gobernuak lurralde hauek Parke Natural deklaratu zituen, beren kontserbazioa, usadiozko erabilera eta natura gozatzeari loturiko erabilera berriak egokitasunez uztartzeari begira.

Natur Parkearen lurrazpia kareharriz osatua dago. Kareharriak bermatuak daude duela 140 milioi urtetik gorako Kretazeo aldiko margen gainean. Kareharria izaki bizidunen arrastoez osaturik dago. Izaki bizidun horiek bizi izan ziren orain Parkeak hartzen duen ingurua estaltzen zuen itsasoan, duela 65 milioi urte.

Karst erliebearen ezaugarriez eratu dago Parkearen kanpoaldeko eta barnealdeko erliebea: dolinak eta ubalak kanpoaldean; leizeak eta kobazuloak, estalaktitak eta estalagmitak barnealdean, den-denak urak sorraraziak. Izan ere, urak kimikoki kareharriarekin erreakzionatu eta harri hori disolbatzen du. Hori dela eta, ura barnealdean sartzen da eta leizeak, galeriak eta haitzuloak eratzen ditu. Ura soilik kanpora aterako da, barnean harri iragazgaitzak aurkitzen baditu (margak).

Halakoetan, iturburuak sortzen ditu. Hori dela eta, ia ez dago urik Parkearen gainaldeko lurraldeetan, erreka batzuk baizik ez.

Fauna eta landareria

Pagoa bertako landarerien nagusi dugu. Pagadi irekia aurkituko dugu, arroka toki askotan ikusgarri dugu lurrarako toki gutxi utzita. Inguru honetan basurdea, azkonarrak, katajineta, etab.. dira ugaztun ikuskarrienak vaina ezin ditugu ahaztu ugaztun txikiak: sagutxuak, satorrak, muxarrak... Hegaztien artean nagusi putrea dugu ikusgai edota sai zuria.

Datu historikoak

Urbasa eta andiako mendateetako parke naturalean topatutako azternei esker, badakigu bertan bizi izan ziren gizakiek Behe Paleolitiko amaierako garaikoak izan zirela, K.A. 80.000 eta 70.000 urte bitartekoak.

Neolitikoko aroan (K.A. 5.000tik 2.750ra bitarte) bertan bizi ziren gizakiak eta beraien bizimoduagatik, bizitza sendentarioago bat izatera behartutak egon ziren.

DOLMEN eta TUMULU ugari daude Urbasa eta Andiako mendateen Parke Naturalean, batez ere iparraldeko izurrian, zaila da esaten ze garai zehatzekoak diren. Abeltzaintza ematen zen guneeetan agertzen dira lehenengo DOLMENAK, larreetan zehatzago.

IBILBIDEA

0 Km. / 0 h. 0. Pista on batetik, ipar-mendebaldeko norabidea hartuko dugu San Martin de Ameskoaren goiko partetik. Punto honetatik Limitaciones mendiaren basoak eta Urbasako larreak ikusteko aukera izango dugu.

2 Km. / 20 min. Ipar norabidean pagoetatik barna aurrera egingo dugu. Lezamen deitutako zonalde batetik.

8 Km / 2.15h. Baso eta larren artean ibili eta gero Lezamen kobazuloaren ondotik pasatuko gara. Hemen Urbasako pagadi zaharrenak zeharkatuko ditugu.

10 km / 3 h. Bioitzako larreetara helduko gara non kanpina ikusteko aukera izango dugu. Bioitza izango da txangoaren amaiera puntua.